



Lanerako Zentro Berezia



Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai

Cien por cien capaces

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



Txorierra etorbidea, 12 48180 Loiu

94 453 59 99

info@lantegibatuak.eus

www.lantegibatuak.eus

Ongi etorria ematen dizugu:



Lantegi Batuak

Lehen egunetik Lantegi Batuak-en gustura egotea eta lanean hastea errazago izatea nahi dugu.

Horregatik, lan zentroan harrera ematean Lantegi Batuak hobeto ezagutzeko lehen informazio praktikoa emango dizugu: enpresa, helburuak, jarduerak, antolaketa...

Zalantzaren bat badaukazu eta galdetu nahi baduzu joango zaren zentro berean egin dezakezu.

Lanerako Zentro Bereziko gidaliburua

AURKIBIDEA

5 Nor gara?

6 Zer eskaintzen dugu?

7 Non gaude?

8 Lantegi Batuak-en lan egiten duten pertsonak

Lanerako Zentro Berezia

10 Zer da?

11 Zein zerbitzu eskaintzen dira?

13 Nola funtzionatzen du?

A

Nor gara?

B

Zer eskaintzen
dugu?



Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai

Cien por cien capaces

C

Non gaude?

D

Lantegi Batuak-en
lan egiten duten
pertsonek

A


Nor gara?

Lantegi Batuak irabazi asmorik gabeko erakunde bat da eta ez du bere onurarako lan egiten.

Gaitasun anitzeko pertsonentzat egokitutako lan-aukerak sortzen ditu. Batez ere, adimen urritasuna dutenak eta Bizkaikoak direnak.

Gure helburu nagusia lanaren bidez zu bezalako pertsonak gizarteratzea eta bere garapen profesional eta bizi-kalitate handiena lortzea da.

Horretarako, ekimen iraunkorrak eta lehiakorrak kudeatzen ditugu eta gaitasun-anitzeko pertsonen ibilbide ezberdinak eskaintzen dizkiegu, lan arloan sartu eta ibilbide honen hasieratik bukaera arte zerbitzu ezberdinak eduki ahal izateko.



B

Zer eskaintzen dugu?

- **Petsonei:**

- Lanean hasi aurreko orientazioa eta prestakuntza
- Zerbitzu okupazionala
- Enplegu zentro berezia
- Lan arruntera aldaketa




- **Bezeroari:**

Industria arloa

- Mekanizazioa eta muntaia
- Elektronika eta kableatzea
- Muntaia elektrikoak
- Produkzioa eta logistika

Zerbitzuak

- Ingurumen zerbitzuak: Lorazaintza eta garbiketa
- Zerbitzu integratuak: Ostalaritza, aterpea...
- Publizitate zuzena eta dokumentuen kudeaketa



Non gaude?

● Bizkaia



D

Lantegi Batuak-en lan egiten duten pertsonak

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK

ZERBITZU OKUPAZIONALA (ZO)

Prestakuntza eta lanaren bitartez pertsonaren garapen pertsonal eta sozialean laguntzen duen foru erantzukizuneko gizarte zerbitzua.

LANERAKO ZENTRO BEREZIA (LZB)

Pertsonara egokitua dagoen ordaindutako lana ziurtatzen du. Lan arruntean integratzeko bidea den lana.

Merkatu arrunterako produkzio lanak egiten ditu.

DESGAITASUN GABEKOAK



-rekin duen Lan Harremana

Ez dago
lan kontraturik

Araudia

- 12/2008 Legea
- 155/2001 eta 185/2015 Eusko Jaurlaritzako Drekretuak

LZB-arentzako lan
kontratua dago

Araudia

- 1/2013 Legegintza-ko errege Dekretua
- 2273/1985 Dekretua
- 1368/1985 eta 427/1999 Errege Dekretuak
- Lan-arloko legeria
- Enpresako hitzarmen kolektiboa

Lan kontratu
arrunta

Araudia

- Lan-arloko legeria
- Enpresako hitzarmen kolektiboa

Lanerako Zentro Berezia

1

Zer da?

2

Zein zerbitzu
eskaintzen dira?

3

Nola
funtzionatzen
du?

1

Zer da?

Lanerako Zentro Berezia

Ezaugarri bereziak dituen lantokia da.

Ezaugarri horiek 1/2013 Legean azalduta daude.

Enplegu Zentro Berezietan langileek ekoizpen lanak egiten dituzte, gero bezeroei saltzeko.

Enplegu Zentro Berezi batean lan egiten duten pertsonak soldata bat jasotzen dute, eta egitekoak beren beharrianetara egokitzen zaizkie.

Lan merkatu arrunterako prozesuan aurrera egiteko urratsa ere bada.



2

Zein zerbitzu eskaintzen dira?

- **Prestakuntza:** Lanpostuarekin eta langilearen garapenarekin erlazionatutako gauzak ikastea, bai maila pertsonalean, baita sozialean ere.
- **Egiteko burutzea:** zentroan/zerbitzuan egiten diren jarduerak.
- **Ebaluazioa eta garapena:** aldian-aldian ebaluazioa egiten zaio langileari, postu hori berarentzako egokia den ziurtatzeko. Ebaluazioaren arabera, erabakiko da prestakuntza gehiago jaso behar duen, goragoko postu batera pasa daitekeen, eta abar.
- **Informazioa, laguntza eta doikuntza pertsonal eta soziala:** Orientazio zerbitzuak, laguntza eta esku-hartzea, pertsonak hala behar badu.
- **Osasunaren sustapena eta arriskuen prebentzioa:** Lan-baldintzak hobetzeko, errekonozimendu medikoak egiten dira, postua pertsona bakoitzaren beharizanetara egokitzen da, eguneroko ariketa fisikoa egiteko eremuak egokitzen dira (luzatzeak, gimnasia posturala...)
- **Komunikazioa:** Lantegi Batuak erakundearen oso garrantzitsua da pertsonen arteko komunikazioa.



2

Zein zerbitzu eskaintzen dira?

Horretarako, erabiltzaile eta langileek hainbat baliabide dituzte, informatuta egoteko: iritziak eman eta iradokizunak egiteko sistema bat, 3 hilerik behin argitaratzen den “Lan Hotsa” aldizkaria, jardueren memoria eta erakundearen katalogoa.

Zentroetan barne bilerak egiten dira, baita senideekin ere; eta atak irekitzeko egunak.

Gainera, Langileen Atarira sarbidea dago.

- **Jantoki zerbitzua:** Zerbitzua borondatezkoa.

Erabili nahi bada, zentroko arduradunari informazioa eman behar zaio.



3

Nola funtzionatzen du?

Enplegu Zentro Bereziko langileen eskubide eta betebehar guztiak Lantegi Batuak-en adostutako lan hitzarmenean azalduta daude.

Arau nagusiak honakoak dira:

- Laneko egutegia eta ordutegiak errespetatzea.
- Egunero lanera joatea.

joatekotan, lan egiten duzun zentroa edo zerbitzua aldez aurretik abisatu behar zaio.

Ez joateko arrazoia justifikatuta egon behar da.

- Lana segurtasunez, erantzukizunez eta kalitatez egin behar da.
- Gainerako lankideekin batera aritu behar da, taldeko egitekoetan, lan-giro egoki bat izateko.

